


Amaia Iñurrieta Leturiondo

*Soraluze,
Gipuzkoa
(1952)*

Aurkibidea

Biografia



1952an Soraluzen jaioa. Magisteritza ikasketak egin zituen. Ikasketak bukatu eta berehala, 1974an, Elgoibarko Pilar ikastetxean hasi zen lanean eta bertan euskaraz irakasten hasi zen lehenengotako irakaslea izan zen. Haur Hezkuntzako irakasle gisa egin zituen urterik gehienak. "Elgoibarko euskararen historia soziala" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

Zintak

SOR-119

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Elgoibarren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2023-06-20
- **Iraupena:** 33 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Soraluzeko hiru neska Elgoibarko Pilar ikastetxera

- **Erref:** SOR-119/002
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:00:29. **Bukatu:** 00:03:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Donostian Magisteritza ikasketak amaitu zituztenean, leku askotatik deika aritu zitzaizkien, lanerako. 1974an Soraluzeko hiru neska Elgoibarko Pilar ikastetxera joan ziren. Ordurako beste bi herritar zebiltzan han. San Viatorreko fraideen ikastetxea zen Pilar. Bigarren mailan hasi zen bera irakasle gisa, mutilekin. Baina sasoi horretan hasi ziren neskak ere Pilar ikastetxera joaten.

2. Euskara Elgoibarko Pilar ikastetxean

- **Erref:** SOR-119/003
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:06:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Magisteritza ikasketak gaztelaniaz egin zituen eta Elgoibarko Pilar ikastetxean hasi zenean gaztelaniaz ematen zituen eskolak. Fraide gehienak kanpokoak ziren eta ume gehienek ere ez zekiten euskaraz. Euskara irakasgai gisa irakasten zuten. Udaran Donostiara joan ziren Oñatibiaren ikastaro bat jasotzera, euskaraz irakasteko prestatzeko. Pixkanaka euskara indartzen joan zen gero eta euskara jakinda irteten ziren umeak, nahiz eta ez zuten izaten euskaraz egiteko ohiturarik.

3. Pilar ikastetxean, lau urteko umeekin

- **Erref:** SOR-119/004
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:06:38. **Bukatu:** 00:09:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

1980an lau urtekoen gelan hasi zen irakasle eta urte asko egin zituen maila horretan. Ordurako berak umeei euskaraz egiten zien dena. Ume gutxi zekiten euskaraz garai hartan. Beraiek sartu zirenerako Elgoibarko bi irakasle zeuden Pilar ikastetxean. Ondorengo urteetan, berriz, eibartar asko sartu ziren. Euskalduntze-prozesua pixkanaka izango zen, mailaz maila.

Transkripzioa

- Gero ni 80. urtian, ya 1980xan, ni hasi nitzan txikixekin, lau urtekuekin. Hor egon nitzan ni denpora mordua egon nintzan lau urteko gelan. Orduan ya hori, bestiak, ya nausixauak eta, beste lan batzuk eta beste gauza batzuk igual eitten zeбен. Ez dakizu? Baiña nik lau urtekuekin zan... ba, ez dakit... gauza... berekin berba ein, abestu... ez zan halako... gramatika erakustia eta horrek gauzok.
- Eta zelan izan zan prozesua euskalduntzekua? Ze hasieran euskera asignatura moduan emoten zenduen eta gero ya noiz hasi zan pixkanaka...?
- Ba horixe, horregaittik... nik hor ez daukat base haundirik esateko. Ze, esaten dotsut, zelan egon nintzan ni txikixekin, ya ni neuan pixkat horretan... aparte.
- Baiña, adibidez, 80xan zuk txikixekin dana euskeraz eitten zendun?
- Bai, bai, dana, dana. Batzuk bazekixen, e! Batzuk bai, baiña oso gutxi. Bestiak danak... gehixenbat erdeldunak zian. Orduan neukan igual 36 ume edo holan baeren, eta zenbatek jakingo zeбен ba euskeraz? Oso gutxi, e! Oso gutxi. Baiña eitten giñuan danak eta berak be, ba, ikasten zeбен.
- Gero, seguraski, maillaz mailla juango zan euskalduntzen, ez?
- Hori da. Hori da. Bai. Eta lehelengo be bai ikasten zeбен irakurtzen be bai erderaz. Lehelenguetan, erderaz. Kartillia izaten zan orduan, "Mi mama me mima" eta horrek zerok. Eta gero ya liburuak be bai agertu... ya hasi zian, ba, euskeraz, irakurtzeko be bai euskeraz. Bai. Pixkatxo bat...
- Zuek izan ziñazien lehenengo irakasle euskaldunak?
- Bai, gu. Bueno, gu sartu giñanian, ya baeren Elgoibarkuak, Maria Luisa Arozena -ez dakit ezagutzen dozun haura, Elgoibarkua-, Maria Pilar be bai Elgoibarkua zan. Horrek ya baeren. Baiña gero ya gu sartu giñanian, gurekin... Eta gure... Gu sartu giñan 74an eta gero 75ian eta 76xan eibartar mordua sartu zian, eibartarrak. Gero genden pilla bat.
- Orduan, hortik hasiko zan pixkat prozesua...
- Bai, bai. Gero ya hortik aurrera... bai. Holaxe izan zan.

4. Pilar ikastetxea: izaera, ospea, itxiera

- **Erref:** SOR-119/008
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:10:35. **Bukatu:** 00:13:51

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Umeei idazten irakasteko materiala beraiek sortzen zuten. Ez zuten harreman handirik Elgoibarko gainontzeko ikastetxeekin. Pilar ikastetxeoak "erdaldunak" ziren. San Viatorreko fraideak joan egin ziren 2004an. Beraiek sei urte gehiago egin zituzten, baina 2010ean itxi egin zen ikastetxea, ume faltagatik. Garai batean eskola erlijiosoa zelako joaten zen jendea hara, baina gerora jendearen ikuspegia aldatu egin zen.

5. Pilar ikastetxea: eskolaz kanpoko ekintzak, ospea

- **Erref:** SOR-119/010
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:15:08. **Bukatu:** 00:17:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Korrika egunean parte hartzen zuten Pilar ikastetxeoek. Egiten zituzten ekintzetako asko erlijioarekin lotuta zeuden, ikastetxearen izaerarengatik. Pilar ikastetxeak fama ona izan zuen eta ume asko pasatu zen bertatik. Ikasturte bukaeran ospakizuna egiten zen eskolako gurasoekin. Gurasoek parte hartzen zuten eskolaz kanpokoetan.

6. Hezkuntza-ereduak Pilar ikastetxean

- **Erref:** SOR-119/012
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:18:24. **Bukatu:** 00:19:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

1984 inguruan ezarriko ziren hezkuntza-ereduak Pilar ikastetxean. Haur Hezkuntzakoena D eredia zen eta Lehen Hezkuntzakoena, berriz, B eredia. Matematika, esaterako, gaztelaniaz ematen zuten.

Transkripzioa

- 84 inguruan jarri ziala euskera-ereduak. Ez?
- A! Ereduak, klaro. D eredia... Bai, bai.
- A, B, D... 84 inguruan.
- A, ba, igual bai. Igual bai. Txikixak D eredia zan, Haur Hezkuntza D eredia zan. Ta bestia... bestia, klaro, gero A izan zan... A da...

- A erderaz.
- Dana erderaz. A! Orduan ez. B. B. Gu giñan B. Osea, txikixak, D, Haur Hezkuntza D, eta bestiak B. B. Zan B. Bai, bai. Hori da. B. Dana euskeraz, baiña, bueno, gero matematika erderaz emoten zeben. Gizarte-ta ez, gizarte euskeraz ta...
- Bai, pixkat Herri Eskoliak euki izan daben eredu, ez, gure epokan.
- Bai, hori da.

7. Elgoibarko Pilar ikastxeko fraideak

- **Erref:** SOR-119/015
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:20:25. **Bukatu:** 00:23:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Pilar ikastetxeko fraideak ez ziren euskaldundu, ez zuten beharrik sentitu. Hasieran asko zeuden, baina gutxitzen joan ziren. Bertan bizi ziren. Bakoitza bere erara ibiltzen zen, besteei jaramon handirik egin gabe. Batzuek herritarrekin ere izaten zuten harremana. Ikastetxeko bileretan haiek izaten ziren erabakitzen zutenak.

8. Pilar ikastetxean maila bakoitzeko bi gela

- **Erref:** SOR-119/016
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:23:35. **Bukatu:** 00:24:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

1974an Pilar ikastetxean sartu zirenean maila bakoitzeko gela bat zegoen, baina berehala maila bakoitzeko bi gela izatera pasa ziren. 40 umeko gelak ere izan zituzten sasoi batean. Umeak gehitzeko arrazoiak: jaiotza-tasaren gorakada eta neskak ere onartzea (mojen eskola ixtean).

9. Eskola-orduak amaitutakoan, klase partikularrak

- **Erref:** SOR-119/018
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:25:27. **Bukatu:** 00:26:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Pilar ikastetxean zebiltzanek hilero kuota bat ordaintzen zuten. Uniformerik ez zuten erabiltzen. Arratsaldeetan 5ak arte izaten ziren eskolak eta, klaseen ostean, eskola partikularrak ematen zituzten. Eskola horiek aparte kobratzen zituzten eta diru hori beraientzat izaten zen. Eskolak amaitu eta klase partikularrak hasi bitartean fraideen jangelara joaten ziren meriendatzera.

10. Pilar ikastetxea salbatzeko neurria

- **Erref:** SOR-119/019
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:26:52. **Bukatu:** 00:28:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Pilar ikastetxea gainbehera hasi zenean, astean arratsalde batzuetan eskolan geratu behar izaten ziren, umeei aparteko eskolak emateko. Dohainik izaten ziren eskola horiek, nahi zuen edonorentzat. 2010ean itxi zen ikastetxea.

11. Bergarako UNEDera, euskaraz alfabetatzera

- **Erref:** SOR-119/021
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:28:18. **Bukatu:** 00:30:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Magisteritza ikasketak gaztelaniaz egin zituenez, gerora euskaraz alfabetatzen ibili zen Bergaran, UNEDen. Ikastetxeko lana amaitu eta gero joaten zen. Ume txikia zuen orduan eta nola moldatzen zen kontatzen du. Batzuek liberatuta egoten ziren, titulua atera bitartean.

12. Pilar ikastetxeko hasierako soldata

- **Erref:** SOR-119/022
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:30:49. **Bukatu:** 00:31:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Pilar ikastetxean zuzenean kontratatzen zituzten irakasleak. Gogoan du hasierako urteetan Soroluzetik joaten ziren hiru irakasleak zein pozik itzultzen ziren soldata jasotzen zutenean. 1800 pezeta izango zirela uste du. Orduan ez zen soldata ona, klase partikularrekin ia gehiago irabazten zuten. Berehala hasi zen soldata hobetzen.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com